Lasa: «Atea zabalik uzten du hilketa gehiago gertatzeko»

Talde armatuko kide izateagatik ez zigortzea salatu dute senitartekoek

Agentziak / **Madril**

Akusatuak talde armatuko kide izateagatik epaitzea espero zuten Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren senitartekoek. Delitu horretatik absolbitzeak adierazten du hilketa eta tortura kasu gehiago gertatzeko «ateak zabalik» geratzen direla. Bestalde, errudun guztiak ez dituztela epaitu gaineratu zuten.



ANGEL DIAZ / EFE

Juan Mari Zabala eta Arantza Lasa, Joxi Zabala eta Joxean Lasaren anai-arrebak, Entzutegiko atarian.

ARANTZA LASAK eta Edurne Zabalak, Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren arrebek, epaiaren azterketa egin zuten Madrilgo Entzutegi Nazionaleko atarian, gainontzeko senideek lagunduta. Biek adierazi zuten zigor handiagoak eta akusatuak talde armatuko kide izateagatik zigortzea espero zutela sendiek.

Epaiketa egiteak aurrerapausoa adierazten duela esan zuen Arantza Lasak, baina argitu gabe dauden kasuak argitzeko itxaropenik ez zuen azaldu. «Epaiak ez digu itxaropen handirik uzten Euskal Herrian argitzeko eta epaitzeko dauden hainbat kasu eta heriotza argitu ahal izateko. Talde armatuko kide izateagatik ere zigortzea espero genuen». Bestalde, Arantza Lasaren hitzetan, «delitu horretatik absolbitzeak adierazten du heriotza, tortura eta gisa honetako kasu gehiago gertatu ahal izateko ateak zabalik geratzen direla, eta hori da gogorrena senitartekoentzat».

Lasa-Zabala auzia amaitu gabe dagoela gaineratu zuen Joxean Lasaren arrebak: «Ez da orri beltz bat pasatu. Soilik errudun hauek kondenatu dira, baina ez dira errudun bakarrak». Goi mailako egituran dauden errudunak oraindik epaitzeko daudela gehitu zuen. «Goiko aldea zertxobait garbitu arte, ez da orririk pasatuko», esan zuen Lasak.

Edurne Zabalak, bere aldetik, adierazi zuen ez dagoela ados epaiarekin, eta zigor handiagoak espero zituela gehitu zuen. Bestalde, Zabalaren senitartekoek ere espero zuten akusatuak talde armatuko kide izateagatik zigortzea. Hala ere, bere ustetan, nahiko argi geratu da delitu hori existitu zela, fiskalak bere ondorioetan azaldu zuen moduan.

Horrekin batera, Rafael Vera eta Jorge Argote absolbitu izana kritikatu zuen. «Oso gogorra da epaiak lesio eta tortura delituak ez jasotzea».

Bestalde, Laura Martinek, Juan Carlos Garcia Goena GALek hildako azken biktimaren emazteak, gogor kritikatu zuen epaia; zigor txikiegiak ezarri zaizkiela esan zuen. Bere ustetan, «talde armatuko kide izateagatik zigortu ez dituztenez, errazagoa izango da indultu bat ematea Gobernuak». Beraz, PPko Gobernuari indultua ez emateko eskatu zion.

Martinentzat argi dago talde armatua hor zela eta Estatuko aparatuak inplikaturik zeudela bertan. Beraz, delitu horretaz ez kondenatzeak «ausardia falta» adierazten du, bere iritziz. «Zuzenbidezko Estatua betetzen dela adierazi nahi izan dute, baina, aldi berean, ez dute talde armatuko delitua jaso kasu honen orria benetan itxi dadin», esan zuen.

ARANTZA LASA

«Epaiak ez digu itxaropen handirik uzten Euskal Herrian argitu gabe dauden hainbat heriotza argitu ahal izateko»

EDURNE ZABALA

«Oso gogorra da guretzat Vera eta Argote tortura delituetatik absolbitzea»

Epaimahaiak«erdiko bidea» hartu duela dio Tolosako alkateak

Efe / **Donostia**

ANTTON IZAGIRRE Tolosako alkateak *Lasa-Zabala auzia*-ren epaia kritikatu zuen, eta epaileek, Estatua ez kondenatzearren, «erdiko bidea» hautatu dutela esan zuen. «Estatua absolbitu dute Vera eta Argote zigorrik gabe uztean. Bestalde, guztien erantzukizuna agerian geratu arren, deigarria da inor ez zigortzea talde armatuko kide izateagatik», esan zuen Izagirrek. Tolosako Udala herri akusazioa izan da epaiketa honetan.

Tolosako alkateak oraindik argitu gabe dauden hainbat kasuren inguruan mintzatu zen. «Zalantzan dago epai honek balioko ote duen oraindik argitu gabe dauden GALen hainbat heriotza argitzeko».

Halaber, Antton Izagirrek duda egin zuen Galindok eta Elgorriagak euren zigorra beteko duten. «Ez dakigu zigorra beteko duten, edota estatu ituna egingo duten ahoa itxita edukitzeko Gobernuaren erantzukizunen inguruan».

dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu?Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu?Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu? Zenbat aldiz esan behar dizugu?